



Akordioaren lehenengo ordainketa

Ekainaren 28an Gizarte Ekimeneko Ikastetxeetako Hitzarmenaren negoziatio-mahaia osatzen dugun sindikatu eta Patronalek 2010eko ekaina eta 2012ko abenduaren artean ikastetxeek sortutako zorra ordaintzeko akordio partziala sinatu genuen. Akordio partzial horren puntu nagusiak hauek dira:

- ✓ 2013ko urriaren 20a baino lehen , ikastetxe guztiek 2010-2012 aldiari dagozkion Gizarte Segurantzako kotizazioak osatuko dituzte .
- ✓ Zor guztia hiru epetan ordainduko da : lehena , 2013ko urriaren 31 ; bigarrena, 2014ko maiatzaren 31a baino lehen , eta azkena 2015ko urtarrilaren 31 baino lehen.
- ✓ 2013an sortutako zorra erreklamatzeko aukera ere zabalik uzten du.
- ✓ Akordioak eten egiten dun 2010ko ekainetik 2012ko abendua bitarteko zorra erreklamatzeko epea.

Akordioaren 9. puntuak jasotzen du berau ikastetxeetara eramango dela berresteko – empresak eta langileen ordezkariak- eta zehazteko zorrak eragindako pertsonen zerrenda - dagozkien lansari aldeak eta epe bakoitzean ordaindu beharrekoa zehatuz- . Ikastetxeek ez dute bete aipatutakoa eta ondorioz langileek eta beren ordezkariak ezin izan dute berretsi berme osoarekin ordaindutako kantitateak zuzenak zirenetz. Txapuza izugarria kontuan izanda akordioa ekainaren 28an sinatu zela

Azaroaren hasieran gaude eta, beraz, zentro guztiak , akordioa betetzeko , kotizaturik izan beharko dute 2010, 2011 eta 2012 dagozkien aldeak. Jakin badakigu ere, ikastetxe askotan kotizatzen ari direla 2013ko uztailaren 7 arte sortutako diferentziak kotizatu dituztela. Komenigarria da norberak egiaztatu dezan kotizazioak eguneratu diren Gizarte Segurantzako Diruzaintzan, eta 2010-2011-2012 eta 2013 epeari dagokion kotizazio-oinarriei buruzko txostena eskatu.

Modu berean, ikastetxeek urriaren 31 baino lehen 2010eko ekaina eta 2011ko apirila bitarteko zorra ordaindurik izan beharko dute. Horrela izan ezean, langileak demanda jarri diezaioke enpresari kantitate-erreklamazioaren bitartez.

Ikastetxeak diru-kantitate horiei dagokien nomina eman behar du eta garrantzitsua da oso berrestea nomina horretan adierazten diren diru-kantitate gordinak bat datozela aipatu aldiko zorra osoarekin.

ARABA: Eulogio Serdan, 5	01012 Gasteiz	☎ 945 14 11 04	☎ 945 14 43 02	araba@stee-eilas.org
BIZKAIA: Nikolas Alkorta, 3 (Zabalburu)	48003 Bilbao	☎ 944 10 02 98	☎ 944 10 13 60	bizkaia@stee-eilas.org
GIPUZKOA: Baso-txiki, 30-34 (atzealdea)	20015 Donostia	☎ 943 46 60 00	☎ 943 45 36 27	gipuzkoa@stee-eilas.org
NAFARROA: Descalzos, 72 (lonja)	31001 Iruñea	☎ 948 21 23 55	☎ 948 22 97 90	nafarroa@stee-eilas.org

**STEE-EILASeko informazio orria -Araututako Irakaskuntza Pribatua****Azaroak 5**

Hurrengo taulan adierazten dira 2010eko ekaina eta 2011ko apirila bitarteko oinarriko soldatari eta hirurtekoari dagozkion zorrak -beti ere kantitate gordinak-.

Haur Hezkuntza 1.go zikloa -maistra-	Oinarriko soldata gordina	732,22 €
	Hirurteko bakoitzeko gordina	24,88 €
Haur Hezkuntza 1.go zikloa -TEJI-	Oinarriko soldata gordina	471,32 €
	Hirurteko bakoitzeko gordina	10,32 €
Haur Hezkuntza 1.go zikloa -laguntzailea-	Oinarriko soldata gordina	410,01 €
	Hirurteko bakoitzeko gordina	10,52 €
Haur Hezkuntza 2. zikloa, Lehen hezkuntza eta erdi-mailako tituladunak	Oinarriko soldata gordina	462,71 €
	Hirurteko bakoitzeko gordina	25,52 €
DBH 1.go zikloa	Oinarriko soldata gordina	454,29 €
	Hirurteko bakoitzeko gordina	25,52 €
DBH 2.zikloa, batxilergo, Prestakuntza-zikloak, HLPP eta goi-mailako tituladunak	Oinarriko soldata gordina	864,98 €
	Hirurteko bakoitzeko gordina	49,12 €
Hezkuntza-laguntzako espezialista	Oinarriko soldata gordina	337,31 €
	Hirurteko bakoitzeko gordina	6,54 €

Dagoeneko, ikastetxe batzuek ordaindu dute 2013ko urtarrilaren 1 eta uztailaren 7 bitarteko zorra. Horrelakorik egin ez duten kasuetan kantita-erreklamazioa egin dezakezu STEE-EILASen bitartez. Gure web-gunean informazio gehiago daukazu.

Argibiderik behar izanez gero, dei dezakezu gure egoitzetara.



ARABA: Eulogio Serdan, 5	01012 Gasteiz	☎ 945 14 11 04	☎ 945 14 43 02	araba@stee-eilas.org
BIZKAIA: Nikolas Alkorta, 3 (Zabalburu)	48003 Bilbao	☎ 944 10 02 98	☎ 944 10 13 60	bizkaia@stee-eilas.org
GIPUZKOA: Baso-txiki, 30-34 (atzealdea)	20015 Donostia	☎ 943 46 60 00	☎ 943 45 36 27	gipuzkoa@stee-eilas.org
NAFARROA: Descalzos, 72 (lonja)	31001 Iruñea	☎ 948 21 23 55	☎ 948 22 97 90	nafarroa@stee-eilas.org